

Abarak

UNAI BREA

Eszeptizismoaren monopolioa

Escépticos. ETB2. Zuzendaria: Jose Antonio Perez.
Aurkezlea: Luis Alfonso Gamez.

ESZEPTIZISMOA antzinako Grezian sortutako korronte filosofikoa da, dogmatismoarekin kontrajarritakoa. Gerora izandako bilakabidean, bitxia eman badezake ere, sarritan dogmatismotik edan du gehiago jatorrizko eszeptizismotik baino. Bilakabide horren azpi-erproduktutzat har genezake ETB2ko *Escépticos* saioa.

“Jendartean arrakasta gehien daukaten gezurkeria ez-zientifikoak desmuntatzeko xedea du programak”, iragartzen dute ETBren webgunean. Beste foro batzuetan, garbiago agertzen dituzte euren asmoak saioaren arduradunek, eta batik bat Luis Alfonso Gamez aurkezle eta zientzia-kazetariak: metodo zientifikoaren galbahetik pasatu ez den sineskeria oro jipoitzeko etorri da gure pantailetara *Escépticos*. Arazoa da maila berean jartzen dituztela mamuetan sinestea eta transgenikoen aurka egotea, esate baterako. Alegia, konbinatu egiten dituzte oso

publiko zabal batek ondo irentsiko dituen kapituluak (ezkutuko zientzien aurkako, estralurtarren ontziak ikusi ei dituztenak egurtzen dituen...), eta zientziaren ikuspuntutik hain argi ez daudenak. Momentuz hala-gai bi jorratu dituzte: transgenikoak eta uhin elektromagnetikoen kalteak.

Hau idatzi aurretik transgenikoak kaltegarriak direla dioten zientzialari zerrenda oparo bat irakurri dut. Haien iritzia “ez-zientifiko” bihurtu dute, eta transgenikoen aldekoena, dogma. Dogmatismo hori *Escépticos*en estiloan igartzen da, edukian ez ezik. Saioaren gidoiak ez du ematen han esandakoak zalantzan jartzeko betarik; are gehiago, tentazioa leukaketenen aurkako irainaren mugan ibiltzen da Gamez. Ikusleoi debekatu egin digute, nonbait, beraien asmoak gidatzen omen dituen eszeptizismo sanoa. ■



G-PUNTUA: 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

finalaurrekoak

ARRASATE
2011-11-26 Uarkape pilotalekua / 17:30

Bertsolariak:
BEÑAT GAZTELUMENDI
FELIX ZUBIA
ALAI MARTIN
AGIN REZOLA
IKER ZUBELDIA
IBAN URDANGARIN

TOLOSA
2011-11-27 Usabal kiroldegia / 17:30

Bertsolariak:
JEXUX MARI IRAZU
AITOR SARRIEGI
UNAI AGIRRE
BEÑAT LIZASO
NEREA ELUSTONDO
IÑIGO IZAGIRRE



gipuzkoako bertsolari elkarteak

www.gpuntua.com